


INOZOAK



Joseph Conrad

© Marjinalia Bilduma
2. edizio zuzendua eta hobetua
Itzultzailea: Xabier Galarreta
Lege-Gordailua: SS-0880/03

Treguierren hartu genuen Kervandarako bidea, eta bidaia gurdiz egiten ari ginen. Bide ondoko lurrezko murruari inguratzen zitzaizkion palaxuen artean gindoazen lasterka; halako batean, Ploumarrera iristear geundela, aldapa harritsu baten barrenean zaldiak trosta moteldu eta gurtzainak eserlekutik jauzi zuen tinkili-tankala. Gero, zartailuari klask eragin eta aldatsean gora abiatu zen, gurdi ondoan aldatatik baldar ibiliz, esku bat ointokian, lurrari so. Handik gutxira burua altxatu, zartailu-muturraz bidean gora erakutsi eta esan zuen:

—Inozo bat!

Eguzkiak lur-azal kizkurtsuaren gainean dirdira egiten zuen indarrez. Zuhaitz makalak, han-hemenka sakabanatuta, maldetako landaretza bakar ziren, eta adarrak zerura zuzentzen zituzten, euskarrietatik zintzilik baleude bezala-edo. Zelaitxoek, maldetan zehar sigi-saga agertuz zihoazen palaxuek eta harrizko murruek zatituta, naïve irudi bateko zetaka traketsak ziruditen, berde eta hori kolore biziko laukizuzen-zatiak osatzen zituztela. Bihurgunerik bihurgune, urrunean hedatzen zen bide baten marrak bitan zauritzen zuen paisaia —itsaso bila abiatu-rikiko hautsezko ibai baten antzean, muinoez bestalderantz herrestan.

—Hortxe dago —esan zuen gurtzainak berriro.

Bide ondoko belar luzean erdi-ezkutaturik, gurdi aurrean, eta ondoren gurpil mailan, aurpegi bat agertu zen, gu haren albotik pasatzen ginen bitartean. Aurpegi ergela gorria zen, eta bala antzeko buruak —ilea huts-hutsean ebakita zeukan— bera bakarrik etzanik zegoela zirudien, gorputzetik erauzita alegia, eta kokotsa hauts artean. Gero eta sarriago agertzen ziren zuhaixketan galtzen zitzaion gorputza, areka hondoan.

Aurpegia mutiko batena zen. Gutxi gora-behera, hamasei urte izango zituen, haren gizabetea ikusita. Halako izakiak denboratik kanpo daudenez, urteek ukituak izan gabe bizi dira, harik-eta Herioak bere golko urrukitsuan jasotzen dituen arte —lanez gainezka egon arren, haurrik bakar batez sekula ahaztuko ez den Herio zintzoa.

—A! Hor beste bat dago —esan zuen gizonak ahoskera pozgarriz, espero zuen zerbait ikustea suertatu izan balitzaio bezala.

Beste bat agertu zen. Honako hau bere itzal laburraren amaieran zutik zegoen, bidearen erdian, eguzki dizdiratsupean. Mahuka luzeko berokian eskuak ezkutaturik, burua soin artean sartuta, bero eta sapaeren erdian makur, hantxe bertan gelditu

zen. Urrunagotik, bazirudien mutila oso-oso hotz zela.

—Hauek bikiak dira —adierazi zuen gurtzainak.

Oinak herrestan inozoak bidetik kanpo bi pauso egin eta soin gainetik begiratu zigun haren aurrean pasatu ginenean. Ez zen bueltatu, ordea, guri begiratzera. Iduripena begien aurretik igaro bide zitzaion, izakiaren burmuin akastunean arrastorik utzi gabe. Aldapa gainera iritsi ondoren, gurditik begiratu nuen. Bidean jarraitzen zuen, utzi genueneko toki berean.

Gurtzaina eserlekura berriro igo, mihinaz klaskada egin eta aldapan behera abiatu ginen. Traba zela eta, gurdiak negar egiten zuen beldurgarriro. Aldapa barrenera iritsitakoan, mekanikeria zalapartatsua goxatu zen eta eserlekuan erdi-bueltatuta esan zuen:

—Oraindik gehiago ikusiko ditugu.

—Inozo gehiago? Zenbat daude hortaz? — galdetu nuen.

—Lau... Ploumarretik hurbil bizi den nekazari baten haurrak dira... Gurasoak hilik daude —erantsi zuen une baten ondoren—. Haien amona baserri batean bizi da. Egunez han-hemen ibiltzen

dira, bide honetan, eta abereekin batera etxerutzen dira ilunabarrean... Oso baserri ona da.

Beste biak ikusi genituen: mutil bat eta neska bat, gurtzainak esan bezala. Berdin-berdin janzen zuten, gonazpikoak bezalako itxura gabeko soinekoekin. Ote-zurtoin gogorren artean patxadaz etzan eta ulu egiten ziguten —soineko haietan bizi zen gauza akastunak halako izakiak bultzatzen baitzituen horrela jokatzera—. Loretxo kontaezinak zituen horixka koloreko murru dirdiratsutik agertzen ziren haien buru kaskamotz beltzak. Aurpegiak more-more jarri zitzaizkien, zoro batzuen pare oihuka ari izatearen poderioz; ahotsek etsita eta kraskatuta ziruditen, atso-agure ahotsak balira bezala.

Lurraldean zehar egindako harat-honakoetan ikusten nituen sarritan. Bide hartan bizi ziren, bidearen luzeak erakarrita han-hemen zebiltzala, haien iluntasun higuingarriak eragindako bulkada adierazgaitzen arabera. Baziren eguargiarentzako iraina, zeru hutsalarentzako erantzukia, paisaia basatiaren kemen bipil eta isilean laidoa. Denbora aurrera joan ahala, haien gurasoen istorioa osatuz joan zen —nire galderek jasotako erantzun hotzak gorabehera; bide ondoko ostatuetan edota bidean bertan, non inozoak han-hemenka ibiltzen ziren, entzundako hitz axolagabeak bilduz—. Fede gutxiko agure erori batek, zartailu izugarri bat eskuan beti zeramanak, zerbait kontatu zidan, alga zurrustatsuz beteriko

gurdi baten ondoan harean zehar nekez genbiltzan batean. Gero, han eta hemen, istorioa baieztu eta biribildu zidaten: harik eta oso-osorik ezagutu nuen arte, ipuin harrigarri eta txiki bat —beti horrelakoak izaten baitira—, bihotz gutxi-jakinek sufritutako zorigaitz ilunen argigarri.

Soldaduska amaitu eta gero, Jean-Pierre Bacadouk oso zahartuta aurkitu zituen etxeokak. Baserriko lanak behar den bezala egiten ez zirela ohartu zen atsekabe handiz. Aitak lehenagoko kemena galdurik zeukan. Morroiek ez zuten nagusiaren itzala sentitzen. Lorioan, etxeko sarrera bakarraren aurrean, gorotz-piloa ez zen lehenago bezain handia. Jean-Pierre, guztiz atsekabeturik, gauza horietaz ohartzen zen. Hesiek konponketa baten premia gorria zeukaten; abereek, axolagabekeria hutsagatik, nozitu egiten zuten. Etxekoandreak ia beti oheraturik egon behar zuenez, neskak sukaldetzarrean egoten ziren berriketan, inork agirika egiten ez ziela, goizetik gauera. Bere artean pentsatu zuen: «Guzti hau aldatu beharra zego». Ilunabar batean, kontuari buruz hitz egin zuen aitarekin. Aterpetik loria labaindutako terrainez itzal astunak marratzen zituzten. Laino antzeko zerbait kulunkatzen zen gorotz piloaren gainean, opalo koloreko eta usaintsu; inguruka zebiltzan oiloak lurrean aztarka ari ziren, eta beren begi biribilek jaurkitako ustegakabeko so batez behatzen zieten bi gizonei. Biak argalak eta nahiko luzeak ziren, eta mozkor-mintzoaz hitz egiten zioten elkarri. Gizon zaharra,

erreuma zela eta, okerturik zegoen lanean emandako urteek makurrarazita; gizasemea, sendoa eta ondo egina, nekazarien modu antsikabeaz mintzatzen zitzaion keinurik egin gabe, goibel eta motel. Eguzkia sartu baino lehen, ordea, aitak semearen argudio sentzudunei amore eman zien.

Ez dut nire alde hitz egiten —esan zion Jean-Pierrek—; lurren alde baizik. Mingarria da gaizki erabiltzen dugula ikustea. Ni ez naiz egonarri gutxikoa.

Gizon zaharrak, makilari eutsita, baietz esan zion buruaz.

—Litekeena duk, bai; litekeena duk —esan zuen ahopean—. Zuzen hago, ziurraski. Egizak nahi duana. Hire ama ondo pozik egongo duk.

Erraina ezagutu zuenean, ama oso pozik jarri zen. Bi gurpiletako udaberri-gurdia sartu zuen Jean-Pierrek lorioan presaka. Arre koloreko zaldiak ttaka-ttaka lauhazkatzen zuen. Senar-andregaiak, elkarren ondoan eserita, gurdiaren pertikak eragindako dinbili-dantzak aurrera-atzera jaurkitzen zituen behin eta berriro. Urrunean, bidetik zetozen ezteiliarrak binaka edota taldeka sakabanatzen ziren. Gizonak aurretik zihoazen, pauso baldarrez eta besoak kulunka. Hiriko arropak janzten zituzten: dotorezia trauskileko jakak, kapela beltz eta gogorak, oinetako eskergak —hauek oso-osorik naslikaz igurtzita—. Emakumeek, berriz,

soineko beltzak, txano zuriak eta bizkarrean hiru zokoka tolestutako zapi kolorgeak janzen zituztela, gizonen atzetik zetozen. Denon aurretik, bibolinak konpasa karrankariak ateratzen zituen, eta binioua zurrungari eta hortz artetik kantari ari zen, soinularia ospe handiz saltoka aritzen zen artean, eskalapoi astunak oso garai goitituz. Prozesio goibela kulunka-edo zihoan bideskaren alde banatan, eguzkitan eta itzalpean, zelaietan eta palaxuetan zehar. Ezker-eskuinean, uxaturiko txoriek taldeka egiten zuten ihes, azkar baino azkarrago. Bacadoutarren baserriko loriora iristerakoan, bideko sigi-saga moduko xingola iluna gizon-emakumez osaturiko masa bihurtu zen, oihuka eta atean joka biltzen zirela. Eztei-afaria luzaro oroitua izango zen. Hurrengo egunean, arratsaldeko azken orduetan ere, dirudun eta ospe oneko baserritar asko lotan aurkituko zituzten bidebazerretan, Treguirrerako bide luzean zehar. Inguruko baserri guztiek parte hartzen zuten Jean-Pierreren zorientasunean. Jean-Pierrek horditu gabe zirauen, bere emazte ixilarekin batera jai-zaratotsetik kanpo. Eskerronak ematearen betebeharra eta ohoreak hartzearen zeregina gurasoen lepotik utzi zuen. Biharamonean, su-tagar ekin zion lanari Jean-Pierrek, eta guraso zaharrek itzal bat —hilobiaren aitzindari— sentitu zuten beraien gainean erortzen. Mundu honetan gazteak nagusi.

Bikiak jaiio zirenean, etxean gela pila zegoen —Jean-Pierreren ama zegoeneko alde

eginda baitzegoen Ploumarreko hilerrira, eta hilarri astun baten azpian bizi zen orain—. Egun hartan, lehenbiziko aldiz semearen ezkontzatik, Bacadou agureak supazter ondoko txokoa utzi eta hutsik zegoen ikuilura jo zuen, xerlo zuria astinduz — sukaldean bildutako emakume multzo ezezagunak bera bazterturik zeukan eta—. Iloben kontuari ondo bazeritzon ere, berak eguerdiko zopa nahi zuen. Haurtxoak erakutsi zizkiotenean, haiei begira adi-adi geratu eta "hau gehiegi duk" edo antzeko zerbait marmartu zuen. Gehiegizko zoriontasuna iruditzen ote zitzaion ala ondorengo-kopuruari buruz ari zen jakiterik ez zuten izan ordea. Atsekabe nabari zitzaion —agurearen aurpegi motela ezer adierazteko gauza izan zitekeela emanetz—; geroko egunetan, eguneko ia-ia edozein ordutan, ate ondoan eserita ikusi ahal zitzaion, sudurra belauin gainetik irtenda, pipa oi artean, baitaratutako alditxar amorratu antzeko zerbaitean sartuta. Behinola, semeari hitz egin zion, etorberriak zirela eta marmarka.

—Lurra dela eta, borroka egingo diate.

—Ez izorratu kontu horrekin, aita —erantzun zion beldurrik gabe Jean-Pierrek. Gero, Jean-Pierrek lanean segitu zuen, burumakur, behi burugogor bat tiraka eramanez.

Bera eta Susan —Susan bere emaztea zen— zoriontsuak ziren. Ez zen poztasun etereorik arima berriak munduratzeari, haiek ere borroka egin

zezaten... garaipeneraino (batek daki!). Hamalau urte barru, bi mutikoak sekulako laguntza izango ziren... Jean-Pierrek bi seme tantai irudikatzen zituen, zangarte luzean lurra zeharkatzen, sororik soro... Susan ere zorienttua zen, berak ez baitzuen nahi emakume zorigabetzat har zezaten; haurrak izan ondoren, inork ez zeukan holakotzat hartzerik izango. Mundu zabalaren zertxobait ikusita zeukaten biek. Gizona, soldaduskan egon zenean; emakumea, britainiar familia batek Parisen emandako urtebetean. Susanek, ordea, herrimina zela eta , lurralde berdetik eta menditsurik urrun egoterik ez zuen izan, jaio zeneko harkaitzezko eta hareazko lurralde idorraz oroitzen baitzen gau eta egun. Emazteak, bi semeetako batek apeza izan behar zuela pentsatu bazuen ere, senarrari ez zion ezer esan, hura errepublikarra baitzen, eta "beleei" gorroto zien —hola deitzen zien erlijioko ministrariei—. Bataioa paregabeko gertaera izan zen. Herri osoa etorri zen, Bacadoutarrak aberatsak eta beso luzekoak baitziren. Gainera, noizean behin oso eskuzabalak izaten ziren dirua gastatzeko orduan. Aitonak beroki berria zuen.

Handik hilabete batzuetara, gau batean, sukaldea isastuta eta atea itxita zegoela, Jean-Pierrek, sehaskari begira, galde egin zion emazteari:

—Zer ez dabil ondo haur hauekin?

Galderari, lasai-lasai egina izan arren, zorigaitzeko ezaugarria izan balitz bezala, aiene zorrotz batez erantzun zion emazteak. Aienea lorioko txerritegian entzuna izan omen zen, zeren-eta txerriak (Bacadoutarrak lurraldeko txerririk onenak zituzten) hara-hona joaten eta kurrinka hasi baitziren marrakari gauaren erdian. Senarrak ogi-tankala gurinarekin irensten segitu zuen, hormari begira, kokots azpian zeukan zopa platerari kea zeriola. Berandu etxeratu zen Jean-Pierre azokatik. Txutxu-mutxuka entzun zien azokan nekazari batzuei —halako zurrumuruak behin baino gehiagotan entzunda zeuzkan—. Etxera zetorren bitartean, gogoetak egin zituen entzundakoari buruz.

—Ergelak! Biak... Ez ditek ezertarako balio!... Tira! Litekeena duk, litekeena duk. Ikusiko diagu. Emazteari galdetuko zioat.

Hori bera izan zen emaztearen erantzuna. Bularrean kolpe antzeko zerbait sentitu bazuen ere, zera bakarrik esan zuen:

—Tira, ekardazu sagardo apur bat. Egarrinaiz eta!

Emaztea erostaka atera zen, pitxa hutsa eskuan. Berehala, Jean-Pierrek zuritu, argi-ontzia hartu eta sehaskarantz joan zen geldiro. Lotan zeuden. Biei soslai begiratu, ahamena bertan bukatu, oinak herrestan itzuli eta plateraren aurrean

eseri zen. Emaztea itzuli zenean, ez zion begiratu, koilarakada pare bat zurru ta purru jan eta iruzkindu zuen goibel:

—Lotan daudenean, gainerako haurrak bezalakoak dira.

Emakume gaixoak aulkitxo batean eseri eta negar-zotinek goitik-behera kordokatuta, hitz egin ezinik egon zen. Jean-Pierrek afaria bukatu eta aulkian erdi etzanda geratu zen, habe beltzetan begiak galdurik. Argi-ontziko garrak Jean-Pierreren aurrean dirdiratsen zuen, gorri-gorri eta txut. Argia, Jean-Pierreren lepo latz eta brontzeatuan islatzen zen; masail zimelak zetaka ilunak bezalakoak ziren; tamalez, haren aurpegiak sor zirauen —burutapen amaiezinei buruz hausnar egongo balitz bezala—. Gero, hitzak neurtuz esan zuen:

—Ikusi behar dugu... Jendeari galdetu behar diogu. Ez egin negarrik... Seguraski... denak ez dira holakoxeak izango, ba! Orain, lo egin behar dugu.

Hirurgarren haurra jaio zenean, Jean-Pierrek lanari ekin zion esperantza urduriz beterik. Haren ezpainek baziruditen estuagoak, lehen baino hertsiagoak zirela; berak lantzen zuen lurrak bular barruan xuxurlaka mintzatsen zitzaion ahots esperantzadunari entzungo ziolako beldurrez-edo. Harrizko zoruan eskalapoiek eragindako zalapartaz

ohartu gabe, haurra sehaskara nola igotzen zen begira gelditzen zen; haurrak, baserriko itxustasun antzeko axolagabekeriaz, begitu bat jaurki zion soin gainetik. Nagusiak eta morroiak diren lurrarekin gertatu bezalaxe, gizon hauek, begiz eta hitzez bare ederrekoak, barruko sua ez diote inori erakusten; beraz, holako gizonez geure buruei egiten diegun galdera egin beharra daukagu lurrari buruz ere, zer dagoen beraren baitan: beroa, bortxa, indar ezkutuzko eta izugarri bat... edo, beharbada, ezer ez, baizik-eta lur puska bat, masa jori eta geldo bat, hotza eta errukigabea, bizitza luzatzen duen edota heriotza dakarren uzta emateko prest dagoena. Amak bestelako begiekin begiratzen zien, bestelako belarriekin entzuten zien —senarra baino zorroztasun handiagoz—. Sabaitik zintzilik, burdinazko gakoetatik eskegita, urdai-zati ederrak ikus zitezkeen, zeinen azpian esertzen ziren (bazkalorduan, mahai horretxen inguruan biltzen baitziren baserritar eskuak), emaztea buru-belarri lanean beti, sukaldeko eltze-plateren artean. Haren gogoan beti sehaskan zeukan, gau eta egun beilan zegoen, esperantzaz eta sufrimenduz hilda. Haur berriak, aurreko biak bezala, sekula ez zuen irri egiten, sekula ez zituen amarengana eskutxoak luzatzen, sekula ez zuen hitz egiten; begi beltzetan sekula ez zen amarekiko ezagutza-begiradarik izan —begi-beltzak edozein dirdirari adi-adi bazeuden ere, zoruan labainduriko errainu soil baten dirdirari jarraitzeko gauza ere ez ziren—. Gizonak lanean ari zirenean, emazteak egun luzeak igarotzen zituen hiru haur inozoekin eta agure txotxoloarekin.

Aitona beltzuri, kizkur eta geldi esertzen zen, supazterreko errauts beroetatik oinak hur-hurbil. Agure ez-gauzak bazirudien ilobekin ondo ez zebilen zerbait susmatzen zuela. Zela bihotzez zela zuzentasunez, behin bakarrik saiatu zen txikiena sehaskatzen. Mutikoa lurretik jaso, mihinari klask egin eta belaun hezurtsuetan jarrita harrapalada dardarti batekin egin zuen aproba. Gero, begi lanbrotsuekin haurrari adi so egin eta poliki-poliki zoruan utzi zuen berriro. Hanka zimelak uztarturik eseri eta agure-begirada aspertu batekin eltzetik ateratako lurruna zelatatzen jarraitu zuen.

Gero, atsekabe mutu batek hartu zuen Bacadoutarren baserria, bertako bizilagunen arnasa eta ogia ere erdibanatzeraino. Ploumarreko eliza nagusiko apezak arrazoi onak izan zituen bere buruari zorionak emateko. Berehala, agertu bat egin zion De Chaves markesari —markesa bazterretako gizonik aberatsenetakoa zen—, eta Jainkoaren bide ikertezinei buruz beti ari ziren bere sermoi ospetsuetariko bat entzunarazi zion alai eta burubero. Gortina lodiak zirela kausa, egongela ilun-ilun zegoen. Besaulki batean patxadaz eserita, kapela belaun gainean, kuxin beltza zirudien gizon txaparra eskuaz keinuka ari zen. Markesak, erdi-jostaturik erdi-aspertuta, azken modako paristar jantzi dotorea soinean zeramala, alde zurretik onartutako bigunkeriaz entzuten zion. Sinestezina zen. Jean-Pierre Bacadou, errepublikazale amorratua bera, mezatara joana zen aurreko igandean. Areago: Ploumarreko jaiak zirela eta,

apezari eskaini zion berean hartzea. Garaipen handia zen, bai Eliz-Amarentzat bai alderdi zintzoarentzat.

—Jakin eta berehala, hona etorri naiz berria berorri kontatzera. Ondotxo dakit zeinen kekkatia den gure herriko gauzetaz —adierazi zion apaizak aurpegia xukatuz. Afaltzen geratzea eskatu zioten.

Gau hartan bertan, lorategiko ateraino mahaikideari lagundu ondoren, ilargitan egurasten ziren bitartean, kontuari buruz eztabaidaka itzuli ziren Chavanestarrak, gaztainondo-bidean gora beren itzal luzeak herrestan zeramatzatela. Markesa, erregearen aldekoa, noski, Ploumarren eta kostaldean zehar sakabanatzen ziren herrixketako alkatea izana zen, eta baita hori koloreko hareazko lautadari inguratzen zitzaizkion irla harritsuetakoa ere. Duela gutxi arte, kinka larrian ikusten zuen bere burua, bazterreko errepublikarrak indartsu samarrak baitziren; Jean-Pierreren Jaunganatzeari esker, berriz, arrisku gabe sentitzen zen. Zeharo pozik zegoen.

—Itzal handiko nekazaria da —adierazi zion emazteari—. Orain dudarik ez daukat: hurrengo hauteskundeak biribilak izango dira guretzat.

—Beti-gose izugarria zara, Charles —
erantzun zion markesak¹ alai.

—Ma chère amie! —argudiatu zuen
senarrak serio-serio—. Aurtengo alkatea bilatu
behar dugu, ez du edozeinek balio eta. Gainera,
laster dira Lege-Etxerako hauteskundeak... Guzti
honek jostarazten nauela uste baduzu...

Jean-Pierrek amore eman zion emazteari.
Madame Levaille negozio-emakumea zen,
hamabost milia inguruan ezaguna eta itzal
handikoa. Potzoloa eta bizkorra, herrialdean zehar
ikusi ohi zitzaion, oinez edota hain ezagun zen
gurdian, alde batetik bestera beti —berrogeita
hamazortzi urte bazituen ere—, nekaezin negozio
berri baten bila. Herrixka bakoitzean etxe bat zuen,
granito-harrobietako nagusia zen, harriz
zamatutako ontziak pleitatzen zituen, Normandiako
irlekin ere bazituen merkataritza-harremanak.
Masail-handi, begi-nabarmen eta mihi-luzea zen:
zerbaitekin tematuz gero, garaitezin eta atseginez
eskuratzen zuen —ondo baino hobeto ezagutzen
zuen bere burua andre zaharrak—. Gau bat baino
gehiago leku berean ematea zen gauza bitxia
harengan; non zegoen jakin nahi bazenuen, bide
ondoko ostatuak ziren tokirik hoberenak hartaz
galde egiteko. Halako bide horretatik igaro berria
zen, edo igaro behar zuen; edo norbaitek bide

¹ Marqués: markes; marquesa: markesa (Elhuyar hiztegia).
(I.O.)

berean harekin suertaturik, goizean ikusia zuen; beste batek gauez espero zuen harekin biltzea. Bideko ostatuez aparte, andre zaharrak gehien bisitatzeko lekuak elizak ziren. Euren buruak liberaltzat hartzen zituzten gizonek jauretxera bidaltzen zituzten euren haurrak, baldin-eta Madame Levaille bertan bazegoen; haurrek eliz barruan korrika batean sartu eta andre zaharrari esaten zioten bidean Uria zain zegoela, patataz, irinaz, harriz edo etxez hitz egiteko prest. Emakumeak otoitzak laburtu, begiak kliskatuz elizatik atera eta eguzkitan zeharkatzen zuen kalea; aurreko ostatuan, sukaldeko mahaian eserita, negozio-kontuei buruz eztabaidaka aritzen zen lasai eta zentzudun. Azken boladan, suhiarekin egoten zen. Aurpegi gozoz eta ahoskera lasaiz, etekina ateratzen zion zoritxarrari. Soldaduskan hartutako uste sendoak sentitu zituen Jean-Pierrek bere bularretik erauzita... ez argudioen bidez, egiteen bidez baizik. Soroetan zebilenean, gogoetak egiten zituen. Hiru ziren. Hiru! Hirurak berdinak! Zergatik? Halako gauzak ez zaizkio edonori suertatzen. Berak ez zuen sekula antzekorik entzun. Bakar bat, tira... jasan daiteke. Hiru ordea! Hirurak. Betiko ezgauzak; bizi artean elikatu beharko zituen... Eta lurra? Zer gertatuko zen lurrarekin bera hil eta gero? Honetaz ere pentsatu behar zuen. Bere uste sendoei uko egin zion. Eta egun batean, esan zion emazteari:

—Ea zer egiten duen zure Jainkoak gutaz. Eska itzazu meza batzuk.

Susanek senarra besarkatu zuen. Hark zutik iraun zuen; gero bueltatu eta atera egin zen. Gero, sotana beltzak ataria ilundu zionean, ez zuen eragozpenik jarri; areago, sagardo tintta bat eta guzti eskani zion apaizari. Elkarrizketa adi-adi entzun zuen; meztara joan zen bi emakumeak albo banatan zituela; horrela, Aste Santuko «betebehar erlijiosoei» amaiera eman zien apaizak. Goiz hartan, bere arimari uko egin dion gizonaren pare sentitu zen Jean-Pierre. Arratsaldean, borroka egin zuen bertako lagun zahar batekin. Lagunak, dirudienez, hauxe esan zion: «Apaiza garaile atera duk; orain, denok irentsiko diagu apaiz-irenslea». Ilea harroturik eta odoletan itzuli zen etxera. Ustekabez, hurrekin suertatu zen —normalean, aitaren begitik kanpo izaten zituzten—; biraoka eta hitz gorriak botatzen hasi zen, mahaian ukabilekin joaz. Susanek negarrari eman zion. Madame Levaillek lasai eserita jarraitu zen, ikaragaitz. «Baketuko zela» alabari ziurtatu eta euritako lodia hartuta bere granitoaz zamatzera zihoazen belauntzia ikustera abiatu zen bizkor.

Urte bat edo igaro ondoren, neska jaió zen. Neska. Soroetan zegoela, Jean-Pierrek haren berri izan zuen. Hain nahastuta utzi zuen berriak non mugarri batean eseri eta hantxe gelditu zen gautu arte, etxera joan ordez —halako gertaera batek eskatzen zuenez—. Neska! Iruzur eginda sentitu zen. Dena den, etxera orduko, bazegoen bere patuarekin erdi-adiskidetuta. Mutil jator batekin

ezkonduko zen... inolaz ere ez alferrontzi batekin. Gainera, hurrengo baliteke mutila izatea, pentsatu zuen... Noski, dena ongi aterako zen. Fede berriak ez zion duda-izpirik sortzen. Zorte txarra amaituta zegoen. Poz-pozik hitz egin zion emazteari. Hura ere itxaropentsu zegoen, guztiz. Hiru apaiz etorri ziren bataiora eta Madame Levaille izan zen ama besoetako. Umea, ordea, inozoa suertatu zen, besteak bezalaxe.

Aurrerago, azoka egunetan, Jean-Pierreri ikusi ohi zitzaion salerosketan umore txarrean beti, kalapitari eta zeken; gero, seriotasun goibelez mozkortu egiten zen; ilunabarrean, ziztu bizian gidatzen zuen gurdia etxera —zeraman abiadura ikusita, bazirudien ezkontza batetik zetorrela, haren aurpegi goibela hileta modukoa bazen ere—. Batzuetan, emazteari behin eta berriro eskatzen zion berarekin azokara joatea; beraz, hurrengo goizean, elkarren ondoan eserleku estuan eserita, gurdian abiatzen ziren biak. Txerri zorigabeak, eserlekuaren azpian jarrita eta hankak sokaz lotuta, intziri goibela ateratzen zuen bidezulo bakoitzean. Goizeko txangoak isilak ziren; ilunabarrean, ordea, etxerako bidea hartzerakoan, Jean-Pierre, piska bat edanda, gaizki-esaka hasten zitzaion ankerkeriaz, eta gainerakoek bezalako haurrak izaterik ez zeukan emakume txundituari sekulakoak esaten zizkion. Susanek, gurdi-higidurek eragindako klanka araugabeei gogor eginez, ez-adituarena egiten zuen. Behinola, Ploumarretik etxera abiatzen ari zirela, mozkor-bulkada goibel batek eraginda,

eliza aurrean gelditu zuen gurdia. Hodei txuri eta garbietan egiten zuen igeri ilargiak. Hilobiek zurbil dirdirutzen zuten hilerriko zuhaizpe urdurien artean. Herriko txakurrak ere lotan zeuden. Erresinulek, hauek bakarrik iratzarrita, beren soinuaren hunkipena hilobietako isiltasunaren gainetik luzatzen zuten. Jean-Pierrek zera xuxurlatu zion emazteari:

—Zer dago hor zure ustez?

Kanpandorrera zartailuaz erakutsi — erlojuaren biribilak begi gabeko aurpegi zurbila ematen zuen han, goian— eta kontu handiz zutituz, gurpiletik jaitsi zen harrastaka. Lurrera helduta, zutik jarri eta hilerriko burdinazko ateraino zeramatzaten mailak igo zituen banan-banan. Atelangaren kontra aurpegia jarrita, nahas-mahas egin zuen deiarar:

—E! Atera hortik!

—Jean! Itzuli hona! Itzuli hona! —otoiztu zion emazteak ahapeka. Jean-Pierrek jaramonik egin gabe segitu zuen deiadarka, eta gero, zerbaiten zain geratu zen. Erresinulen kanta elizmuru garaietatik hedatzen zen alde batera eta bestera; gero, soinu berak harrizko gurutze eta gris koloreko hilarri lauen artetik egin zuen hegan — esperantzazko eta damuzko hitzekin xixelatutako hilobien artetik.

—E! Atera hortik! —oihu egin zuen Jean-Pierrek ozenki.

Erresinulek kantatzeari utzi zioten.

—Ez dago inor? —jarraitu zuen Jean-Pierrek—. Hemen ez zegok inor. Beleek asmatutako ziri hutsak, besterik ez. Holaxe duk, bai. Inoren aztarnarik ez. Allez! Eup!

Atea gogor astindu zuen. Metal-soinu izugarritz kirrinkatu zuten atelangek, harmailetan zehar herrestan eramandako kateak bezala. Berehala, txakur bat zaunka hasi zen. Jean-Pierre kili-kolo gurdira itzuli eta hiru aldiz saiatu ondoren, eserlekura arrastaka igo zen. Susane eserita zegoen, isil-isilik eta geldi-geldi. Mozkorti-garraztasunez esan zion emazteari:

—Ikusten duzu? Inor ez. Ni bai eroa, ni! Malheur! Hauxe eta, norbaitek gorriak ikusi beharko ditu. Bai horixe! Etxetik hurbil ikusten dudan hurrengo apaizari zartailuarekin berotuko diot bizkarra. Halaxe egingo dut. Ez dut berriro apaizarik ikusi nahi... Txiroei lapurtu ondoren, beleei laguntzen diete. Gizona naiz. Ikusiko dugu, ba, gainerakoenak bezalako haurrak izateko gauza naizen ala ez... Ikusiko dugu...

Aurpegia ezkututzen zioten hatzen artean eman zion negarrari emazte gaixoak.

—Ez esan horrelakorik, Jean; ez esan horrelakorik, ene gizona!

Jean-Pierrek muturreko bat eman zion eskugibelarekin. Gero, kolpeka bultzatu zuen gurdi barruraino. Hantxe kukubilkatu zen Susan, gurdiko dinbili-dantzek alde-alde eta penagarriro batera eta bestera jaurkitzen zutela.

Gurdia haserre gorrian gidatzen zuen, zutik, zartailua erabiliz, gogo txarrez lahuazkatzen zuen zaldi arrearen uhalak gogor astinduz, aberearen ipurdi-masail zabalak gaintetik uhalei oldarrez eraginez. Baserriko txakur-zaunka haserratuak zirela eta, soroek zalapartaka durunditzen zuten gauean, txakurrek gurpiletako klankei jarraitzen baitzieten bide osoan zehar. Ibiltari berantiar batek edo bik justu-justu lortu zuten bide bazterrera egitea. Sarreran bertan baserriko letreroarekin kaskarrekoa hartu eta Jean-Pierre buruz behera atera zen gurditik jaurkita. Zaldiak ateraino segitu zuen poliki-poliki. Susan deiadarka hasi zen eta berehala baserriko morroiak abiatu ziren azkar-azkar loriora. Hila zela pentsatu zuen emazteak, eroritako lekuan bertan lotan baino ez bazegoen ere. Harengana azkartu ziren morroiei biraoka hasi zitzairen Jean-Pierre, lo egiten uzten ez ziotela eta.

Udazkena heldu zen. Zeru hodeitsua muinoetako silueten gaintetik jaisten zen. Hildako hostoek haize-zirimoletan egiten zuten dantza zuhaitz biluzien azpian, harik eta haizeak —barren-

barrendik zizpuruka— haran gorrietako sakanetan uzten zituen arte. Goizetik gauera, haizeak erauzitako adarki beltzak ikus zitezkeen han-hemen sakabanatuta; lakarrak, minez-edo oker, lur mordinduaren eta hodei hezetsuen artean zabunka ari ziren tristeziak jota. Udara egunetako errainu garbiak eta eztitsuak joanak ziren; errainu berriak, kolorge eta amorraturik, itsasorako bidea oztopatzen zuten harrien aurka oldartzen ziren. Zeruertzetik zeruertz, muino artetik hedatzen zen hondartzako bidea eta, bide-kako mortuetan dizdira antzeko zerbait susmatuz, lohizko ibai nabigaezina zirudien.

Jean-Pierre zelairik zelai zihoan, zirimiria zela-eta ilun nabaritzen zitzaiola. Batzuetan, zango luzez zebilen tontorretan zehar, hodeiz eginiko gortina gris eta itzel haren azpian bakar-bakarrik eta goi-goian, munduko ertzetatik bertatik egurasten ariko balitz bezala. Beltz koloreko lurrari, lur mutu eta itxaropengarriari, biziaren alde lan egiten duen lurrari begiratzen zion —zeru tristagarriaren azpian, heriotzarena bezalako gelditasun batean—. Gogoeta egiten zuen are txarragoa zela lur emankorrean esperantzarik ez izatea seme-alabarik gabea izatea baino. Lurrak ihes egiten zion, lurrak erronka egiten zion, lurrak —Jean-Pierreren gainetik goibel eta arin zihoazen hodeien antzera— beltzuri egiten zion. Soroen aurrez-aurre zegoenean, irauten duen hodeiaren aurretik desagertzen den gizonaren ttipitasuna igar zezakeen. Belar-gorantz-makurtuari nagusi-begiez

begiratuko zion semeari buruzko ametsari uko egin? Berak pentsatzen zuen bezala pentsatuko zuen semea, berak sentitzen zuen bezala sentituko zuen semea, haren buruaren parte izango zen semea... Harenak egin eta gero, lurra nagusi zapalduz iraungo zuen semea! Ustekabean ahaideez oroitu zen eta biraoka hasteko amorru nahikoa izan zuen. Ahaideak! Ezta pentsatu ere! Etxerako bidea hartu zuen, bere baserriko teilaturantz —inguruan sakabanaturiko zuhaitz gorrien artetik agertzen zen eta— zuzen-zuzenean abiatuz. Hesi baten gainetik pasatzen ari zela, txori-talde bat zelaian agertu zen karraka eginez; Jean-Pierreren bizkarraren atzean geratu ziren, isilik eta hega-biraka, gedar-maluten antzeko.

Arratsaldean, Kernavionetik hurbil zeukan etxera abiatu zen Madame Levaille. Bere granito-harrobian lan egiten zuten langileei ordaindu behar zien; txintxo-txintxo heldu zion bideari, hortaz; beste denda bat baitzeukan han bertan, hura ere haren jabetzakoa. Horrela, langileek soldatak gastatu ahal zituzten bere dendan, hirira joateko nekerik hartu gabe. Etxea harkaitz artetik altxatzen zen. Bideska lohitsu eta harritsua atarian bertan amaitzen zen. Itsastxoriak Stonecutter baten muturrean lehorreratzen ziren, uhinek eragindako zalaparta zakarretik lasai, harkaitz beltz eta axolagabe piloen aurrean txio izugarriak ateraz. Harkaitzek, beso-motz edo, bipil agertzen ziren, ikusezina den gauza horrek asmatutako eraso beldurgarriari gogor egin nahirik. Ekaitz-egunetan,

baretasun durundigarri eta asaldagarri batek hartzen zuen etxea, haize-erauntsiaren erdian bezala. Enbat-gauetan, berriz, itsaso-behera egiten zuenean, Fougèreko badiak —etxe azpitik berrogeita hamar urratsera— beltz koloreko zulo itzelezkoa zirudien, eta bertatik, xuxurlak eta zizpuruak igotzen ziren beheko hondartzak bizirik eta erostari baleuden bezala. Itsasoak gora egiten zuenean, bueltan zetozen ur handiek eraso egiten zien oldarraldi laburretan harkaitzetako ertzei, argi zurbilezko eztandak sortaraziz, lehorreko belardiari berari hozka eginez hura hil arte —apar bihurtuta hegan egin eta gero.

Muinoetatik iluntasuna heldu, kostaldean zehar hedatu, ezkutatzeaz zegoen eguzkiko izpiak itzali eta, behera egiten zuen itsasoari jarraituz, itsas barrura jo zuen. Eguzkiarekin batera, haizea gelditu egin zen. Gero, itsaso erotua eta zeru suntsitua besterik ez zen gelditu. Etxe gainean, zeruak bazirudien buruorrazekin sostengaturiko piltzarrak janzen zituela. Madame Levaille, gau batez bere langileen zerbitzari, festa bukatutzat ematen saiatzen ari zen.

—Zaharregia nauk, mutilok. Honezkero ohean egon behar nitek —esaten zuen behin eta berriro umore onez.

Haize agerian baleude bezala, gizonak oihuka ari ziren mahai gainetik. Bazter batean, laukote bat kartetan ari zen; hatz koskoekin

egurrean jotzen zuten, eta jokaldi bakoitzean biraoka hasten ziren. Beste langile bat begirada galduta zegoen aulkitxo batean eserita, kanta baten konpasa —etengabe errepikatzen zuena— ahapeka kantatuz. Beste bazter batean, bi gizon ahopez eta haserre bizian ari ziren eztabaidatzen emakume bati buruz —elkarri adi-adi begira zeuden eta une batetik bestera borrokan hasiko zirela zirudien; xuxurlaka, txistu antzeko zurrumurru pozointsu batez hitz egiten zioten elkarri, bortxa eta hilketa begietan susmatzen zitzaie— Hango giroa hain zen lodia non aizto batekin ebaki zitekeen. Gela zabalean piztutako hiru kandelek gorri eta goibel dirdiratzen zuten, errauts azpian azkenetan dauden txingar antzo.

Krasket-hots txikia, gaueko ordu hartan, trumoi-hotsa bezain harrigarria eta ikaragarria izan zen. Madame Levaillek edalontzi batean alkohola isurtzeari utzi zion; jokalariek buruak biratu zituzten; xuxurlaka gertatzen ari zen liskarra behingoan gelditu zen; kantariak, ordea, ate aldera behatu bat eman ondoren, aurpegi lasaiaz segitu zuen ahapeka kantatzen. Susanek atean azaldu, barruan sartu, kolpe batez atea itxi eta atean bizkarra eutsiz, ia-ia ozenki, esan zuen:

—Ama!

Madame Levaille, botila berriro hartuz, esan zuen lasai:

—Tira, ba! Zer egiten ari haiz hemen? Zer nolako itxura dunan!

Botila-lepoak txilin atera zion edalontzi-
ezpainari, andre zaharra ikaratuta baitzegoen, eta
baserria sutan zegoela ere igaro zitzaion burutik.
Alabaren egoera adierazteko beste arrazoirik ezin
izan zuen asmatu.

Susanek, blai eginda eta lokatzez zikin,
gelaren luzea osoa aztertu zuen begiekin, lokal
barruko gizonenganantz begiratu. Amak galde
egin zion:

—Zer gertatu da? Jainkoak gorde gaitzala!

Ezpainak dardar iraun zuen Susanek.
Zaratarik ez.

Madame Levaillek alabagana hurbildu,
besotik hartu eta aurpegiari begiratu zion.

—Arren! —esan zuen ahots dardartiz—.
Zer gertatu da? Lohian herrestan ibilia haiz...
Zergatik etorri haiz...? Non dago Jean?

Gizonak jaiki eta geldiro hurbildu
zitzaizkien, ikusmin goibelaz elkarri begirutzen
ziotela. Madame Levaillek atetik urrun alaba
bultzatu eta horma ondoko eserleku batera gidatu
zuen. Gero, gizonengana itzuliz, su-ta-gar oihukatu
zien:

—Aski duk! Alde hemendik... denok! Itxi behar diat.

Gizonetariko batek, eserlekuan erdi-zorabiatuta zegoenak, Susani begiratzuz esan zuen:

—Baina... hil zorian dagoela ematen dik!

Madame Levaillek kolpe batez itxi zuen atea.

—Alde! Hanka hemendik! —oihukatu zuen urduri eta dardarti.

Gizonak gau ilunera atera ziren, ergelkiro barrez. Kanpoan, Lotharioarrak elkarren aurka oihuka hasi ziren. Gainerakoak haiek lasaitzen saiatu ziren, denak aldi berean mintzatuz, itzulipurdika eta taldeka ibiliz, beste ergelkeria bat zela-eta protestaka. Gizonekin batera iskanbila bideskan gora desagertuz joan zen.

—Hitz egin, Susan. Zer gertatu da? Hitz egin! —otoiztu zion Madame Levaillek atea itxi orduko.

Susanek, mahaiari begira, hitz adiezinak ahoskatu zituen. Andre zaharrak eskuak burura eramane, eskuak berriro erortzen utzi eta alabari so geratu zen atsekabe handiz. Andre adinduak pentsatu zuen alaba zorutzen ari zela —bere

senarrari ere burua nahastu zitzaiolako, hil aurretik—. Asaldura handiz galde egin zion:

—Ba al daki Jeanek non hagoen? Non dago Jean?

Susanek nekez ahoskatu zuen zerbait.

—Zer esan dun? zer esan dun? zer esan dun?

Susan, malkorik gabe eta txundituta, Madame Levaileren aurrean eserita zegoen. Madame Levaillek, alabari begietara begiratu eta etxeko isiltasunean zerbait ikaragarria, sentsazio adierazgaitz bat nabaritu zituen. Ezin zuen sinetsi; ustekabeko eta erabateko egoera hark bulkaturik, ezin zuen hura sinetsi. Esatekorik bururatzen ez zitzaionez, alabari azalpen bat eskatzea ere ez zitzaion bururatu. Pentsatu zuen:

—Istripua... istripu izugarria... burua odoletan... sabai-zulotik nonbait erori eta...

Andre zaharrak gogoia beste nonbait zeukan; mutu zegoen, begiak etengabe keinuka.

Bat-batean, Susanek esan zuen:

—Neronek hil dut.

Une batez, Susanen ama arnasarik gabe geratu zen, aurpegi-baketsu. Hurrengo segunduan, ordea, deiadar egiten hasi zen:

—Emakume gaizto hori... Lepoa moztuko dinате.

Halako batean, gendarmeez oroitu zen. Etxean sartu ondoren, zera esango zioten: «Zure alabaren bila gatoz; emauguzu». Aurpegi zorrotzeko eta gogorreko gendarmeez legeari eutsiko zioten. Hark ondo ezagutzen zuen brigadierra... Aspaldiko laguna zen. «Zure osasunari opa, Madame» esan ohi zion bihotz-bihotzez kopatxo bat koñak ezpainetaratu aurretik —lagun zaharrentzako botila berezitik isuritako koñaka zen—. Orain, ordea!... Burua galtzen ari zen. Pauso azkarrez zebilen hara-hona, zerbaiten behar gorrian bezala edo. Azkenik, ibiltzeari utzi, gela erdian geldi-geldi geratu eta alabari deiadar egin zion:

—Zergatik? Esan! Esan! Zergatik?

Besteak bazirudien sorgortasun hartatik ateratzen ari zela.

—Harria naizela pentsatu ote duzu? — deiadar egin zion berak ere amarengana hurbilduz.

—Ez! Ezin daiteken... —esan zuen Madame Levaillek etsi-etsita.

—Zoaz eta ikustazu zuk zeuk, ama —
ihardetsi zion Susanek begiak dirdaitu eta hari
begira—. Zeruan urrikaltasunik ez dago... ezta
zuzentasunik ere. Ez!... Ez dakit ba... Zer uste
duzu: bihotzik ez dudala? Uste ote duzu jendeari
nitaz trufatzen ez diodala inoiz entzuten? Ba al
dakizu batzuek nola deitzen didaten? Inozoen
ama... horixe da beraz nire izengoitia! Nire
semetxoek ez naute sekula ezagutuko, ez didate
sekula hitz egingo. Ez dute ezer ezagutuko; ez
gizonak... ez Jainkoa. Ez al dut otoitz egin, ba?
Jainkoaren Ama berberak ere ez dit entzun ordea.
Ezta Amak ere!... Nor da beraz madarikatua: ni ala
hilik dagoen gizona? E? Esan! Nitaz ere pentsatu
dut. Uste al duzu Jainkoaren haserreari erronka
egin niola eta horregatik baserria «gauza horiez»
beteta dudala?... Jaten ematen dien eskua
ezagutzen dute abereek; «gauza horiek» ordea ez
dute inoiz ezagutuko... abereak baino okerragoak
dira. Gauez, nork egin zuen birao eliz atarian
bertan? Neu izan al nintzen?... Tori ba!...
Guraizeak sartu dizkiot eztarrarian...
bularrezurretik... Aienerik ez diot entzun... Zutik
zegoen alde egin dudanean... Oraintxe bertan
gertatu da. Nola iritsi naiz hona?

Madame Levaillek dardar egin zuen.
Bizkarra, mahuka hertsiazen azpiko beso potoloak
igaro zizkion hotzikarak bulkatu ostikoka hasi
zen lurraren aurka. Hotzikarak masaila totoloak,
ezpain lodiak, begi zaharretako zimurrak igaro
zizkion. Esan zuen totelka:

—Ohorea kendu didan... emakume gaixto horrek. Tira ba! Aita bezalakoa izan hintzen beti. Pentsatu al dun... beste munduan zer izango den hitaz? Mundu honetan... O, hau atsekabea, hau!

Bero zen oso. Sutan sentitzen zen barrutik. Esku izerditsuak bihurrikatzen zituen. Ustekabean, zeharo ikaturik gora-ta-behera ibiltzen hasi eta zapi zabalaren eta euritakoaren bila abiatu zen, alabari inoiz begiratu gabe. Susanek, gela erdian zutik, begirada zoroz eta axolagabez behatzen zien amaren higidurei.

—Mundu honetan baino txarragoa ez da izango —esan zuen Susanek.

Susanen amak, euritakoa eskuan eta soinzapia herrestan eramanez, hasperen egin zuen barru-barrutik.

—Apaizarengana joan behar dinat — deiadar egin zuen haserre handiz—. Egia esan dudan ere ez zekinat. Emakume izugarria haiz. Edonora joanik ere aurkituko haute. Gera hadi hemen... edo alde egizan, hala nahi badun. Mundu honetan ez zegon tokirik hiretzat.

Irteteko prest zegoela, gelan gora eta behera ibiltzen hasi zen berriro. Gero, botilak apalategietan jartzeari eta kartoizko kaxetan mahai-tresnak gordetzeari ekin zien. Gertatutakoaren benetako

zentzua unetxo batez ulertu izan balu, buru barruan zerbait lehertzen zitzaiola sentituko zukeen — zerbait horrek, berriz, ez ziokeen burua txikituko, haren zoritxarrerako—. Kandelak banan-banan itzali zituen, zertaz ari zen ohartu ere egin gabe. Iluntasuna zela eta, zeharo ikaraturik geratu zen. Alditxo bat igarota, alabaren arnas-hotsaz aparte ez zuen besterik entzuten. Alaba —geldi eta lasai zegoena, bizi-zantzurik eman gabe— ez zuen ikusten. Azkenik, minutu gutxitan, zahartu egin zen. Ziurtasunik gabe hitz egin zuen, hortzek klaska egiten ziotela, haserre hotz eta hilgarri batek astinduta edo.

—Hobe txikitan hil izan bahintz. Ez naun sekula ausartuko eguzkitan egurastera. Haur inozoak izatea baino zoritxar handiagorik badun munduan. Inozo jaio izan bahintz... hire seme-alabak diren beza-.

Alabaren giza irudia ikusi zuen leihoko argitasun zurbil eta nahastuaren aurretik igarotzen. Gero, atarian berriro ikusi zuen une batez. Atea panpakada batez itxi zen. Madame Leville, zaratak amesgaizto luze batetik atera izan balu bezala, etxetik kanpora lehiatu zen.

—Susan! —oihu egin zion harlaxetik.

Harri bati luzaro entzun zion hondartza gaineko aldapatik behera amiltzen. Kontu handiz ekin zion etxetik kanpo ibiltzeari, esku bat etxeko

horman, eta badia mortuko iluntasun baketsuari so geratu zen adi-adi. Berriro deiadar egin zuen:

—Susan! Hire burua hilko dun hor.

Harriak, iluntasunaren erdian, azken jauzia egin zuen. Madame Levaillek ez zekusan ezer. Ustekabeko pentsamendu batek itota edo, deiadar egiteari utzi zion. Leizeko iluntasun goibelari bizkarra eman eta Ploumarrerako bideskan zehar ibiltzeari ekin zion zirti-zarta, bidean behin eta berriro behaztopatzen, bidaia etsi bati (beharbada, bizitza osoan iraungo zionari) lotu berri izan balitz bezala. Badia gainetik heltzen ziren olatu-hots goibel eta aldizkakoek jarraitu zioten lur-barneaz harantzagoraino, zelaietako bakardade goibela babesten zuten palaxutzar artean galduz.

Susan korrika atera zenean, ezkerreko bidea bat-batean hartu eta aldapa ertzean kukubilkatu zen, harritzar baten atzean. Harri bat aldapan behera erori zen, jauzi ahala durundituz. Madame Levaillek dei egin zionean, Susanez eskua luzatzeko adorea izan balu, amaren gona ukituko zukeen. Andre zaharra alde egiten ikusi arren, geldi-geldi geratu zen, begiak itxita eta harritzarreko gainazal gogorrari eta latzari estu-estu atxikita. Handik gutxira, harkaitz arteko goibeltasun sakonean, ederki ezagutzen zuen begitartea ikusi zuen —ahoa zabalik eta begiak zeharo zabalik zituen begitartea—. Susanez oihu epel bat jaurki eta zutik jarri zen. Aurpegia

desagertu egin zen, neska harri pilo arteko bakardade minean arnasestuka eta dardarka utziz. Susanek —burua harritzarraren kontra eutsita— atsedean hartzearren, berriro kukubilkatu zen; lehengo aurpegia, ordea, berriro itzuli zen, eta oraingoan lehen baino hurbilago jarri zitzaion, Herioak arestian etendako hitzak amaitu nahian edo. Mamuaren oinetara lauzka iritsi eta esan zuen:

—Alde hemendik ala berriro egingo dut.

«Gauzak» duda egin zuen. Gero, ezker-eskuinera mugitu zen. Susanek han-hemenka korri egiten hasi, atzera berriro itzuli eta mamuari oihu eginez irudikatu zuen bere burua. Azkenean, gauaren isiltasun amaigabeak ikaratu zuen. Aldapa ertzean zabuka egin, oin azpian malda pikea sentitu eta buruz ez erortzeko itsuka eta arrapaladan jaurki zen aldapan behera. Legartza itzarri zela eman zuen; uharriak pirripika zihoazen Susasen aurretik eta albotik; handiagotuz zihoan zalapartarekin batera amildegitik behera zihoazen Susanen aurretik. Gaueko bakean zarata are biziagoa egin zen, zurrumuru bihurtu arte, etengabea eta sukartia: hondartza harritsuko obo-erdia badian amiltzen hasi izan balitz bezala. Susanekin batera aldapak ere korri egiten zuela zirudien. Susanen oinek ia-ia ez zuten aldapa ukitzen. Susanek aldapa-oinean behaztopatu, eta besoak aurrera luzaturik, lurrera erori zen. Berehala jauzi batez altxatu eta azkar-azkar bueltatu zen atzerantz begiratzeko. Aurpegia bertan zegoen, bien arteko

aldeari eutsiz, gauean orban zurbila zirudien dizdira-edo begian zeukala. Susanek deiadar egin zion:

—Alde hemendik!

Minez, beldurrez, alferrikako labainkadaren amorru berberaz egin zion deiadar; baina ezin zuen bere aurretik desagertarazi. Zeren bila zebilen ordea? Hilik zegoen. Hildako gizonak ez daukate seme-alabak izaterik. Inoiz ez ote zuen bakean utziko? Susanek garrasi zorrotza bota zuen, aurrerantz luzaturik zeuzkan eskuei airean eragiten ziela. Mamuaren ezpain lodietatik ateratako arnasa sentitu eta garrasi luze eta etsi bat jaurkiz, harea lauean zehar egin zuen ihes.

Susanek arin-arin egin zuen korrika, gorputzari eskatzen zion ahalegin izugarriaz konturatu gabe. Badia urpean ezkututzen zenean, arkaitzak itsaso urdin eta garbiaren gainetik azaltzen ziren urperaturiko kanpandorre zorrotzen antzera, Susanen aurretik labaindu eta bake izugarria lehorrera eramanez. Ezkerrean, urrun, dizdiratzen zuen zerbait ikusi ahal izan zuen: gandu bat; eta ganduaren inguruan, itzal txikiak jiraka ari ziren, gorpil baten erradioak balira bezala. Norbaitek oihukatu zuen: «Ei! Hemen!»; Susanek oihu zakar batez erantzun zuen. Beraz, senarra oihu egiteko gai zen oraindik! Dei egiten zion geldi zedin. Inoiz ez!... Susan korrika bizian abiatu zen gauaren erdian. Handik hurbil zegoen alga-biltzaile

taldearen aurretik igaro zenean, alga-biltzaileek lana utzi zuten bertan behera, itzal iheskorrak jaurkitako naturaz gaindiko oihuek erabat beldurturik. Sardeetan eutsita, gizonei beldur nabari zitzaien. Emakume bat belauniko erori, aitaren egin eta otoizka hasi zen ahots goraz. Neskato batek — piltzarrez eginiko gona alga likitsuz beterik zeukanak— negarrez hasi eta argia zeraman gizonarengana bultzatu zuen urez beteriko zama, herrestan. Norbaitek esan zuen:

—Mamua itsasoan sartu da korrika.

Beste ahots batek oihu egin zuen:

—Itsas gora hasi da. Ikus, potxingoak han-hemen azaltzen hasiak dira. Emakumeok, goazen hemendik. Jaiki hortik! —esan zuten batera ahots askok—. Bai, goazen hemendik; utzi gauza madarikatuari itsasora joaten!

Beraz, argi bakarraren inguruan denak pilatuta, alde egiten hasi ziren. Ustekabean, gizon bat biraoka hasi zen. Gertatutakoaren arrazoia jakin nahi zuen. Emakumeek protestaka ihardetsi bazioten ere, gizonaren silueta sendoa taldetik aldendu eta korrika abiatu zen. Hitz iraingarri eta trufagarri batek taldekoenga heldu eta iluntasunera jaurki zituen. Emakume batek zizpuru bat bota zuen. Agure batek esan zuen serio-serio:

—Gauekoei bakarrik utzi behar zaie.

Poliki-poliki abiatu ziren, harea bigunean oinak herrestan zeramatzatela eta txutxu-mutxuka hitz egiten zutela: *Millot ez da ezeren beldur, erlijiorik ez duenez gero; baina berea hartuko du egunen batean.*

Bele delako uhartxotik hurbil, Susan itsas gorarekin topo egin eta bertan gelditu zen, arnastuka, oinak uretan. Itsasoaren zurrumurrua eta laztan hotza sentitu zituen. Apur bat lasaituta, Beleko multzo goibela eta nahasgarria azaldu zitzaion begi aurrean; Molène hondartzetako marra luze eta zuria ere ikusi ahal izan zuen, adar batetik bestera hedaturik —itsas beheran, Fougère badiako hondo lehorretik gorago agertzen diren hondartzak—. Susanek atzerantz begiratu zuen; urrunera, izartegi hondora, kostaldeko inguru malkorrera begira geratu zen. Itsasbazterraren gainetik, ia-ia Susanen aurrean, Ploumarreko elizdorrea gailentzen zen; piramide lerdan eta garai baten antzera, izar multzotik zetorkion dizdirarantz igo nahi zuela ematen zuen. Susanek lasaitasun antzeko zerbait sentitu zuen. Bazekien non zegoen, bertara nolatan eta zergatik iritsia zen gogoratu zuen. Harengandik hurbil hedatzen zen iluntasunari so geratu zen. Bakar-bakarrik zegoen; harengandik hurbil ez zegoen ezer, ez hilik ez bizirik.

Itsasoa piskanaka gora zihoan. Beso luzeko eta artegako errekatxo bitxiak arin-arin sortzen zihoazen hareazko muino ttipietan zehar.

Potxingoak gero eta handiagoak egiten ziren, azkartasun miresgarriz. Bien bitartean, itsaso bikaina —artean lehorretik urrun— zeruertzeko lerro nahastutik ari zen burrunbaka. Susan potxingoetan plista eta plasta zebilen lehengo bidetik atzera, itsas gora xuxurlati eta xamurrari ihes egin nahian. Bat-batean, gargara bihurriko hotsa ateraz, urak ia-ia oinetara heldu zitzaizkion. Zeharo ikaratuta, bihotza hasi zitzaion azkar-azkar taupaka. Toki hura zabalegia eta mortuegia zen: hilko al zen halako toki batean? Biharamonean nahi zutena egingo zioten. Hil baino lehen, ordea, esan behar zien... Potxingo batean txipli-txapla ibili zen gerriraino bustiz, ezeri erreparatzeko kezkatuegi nonbait... Adierazi behar zien... «Ohi bezala etxeratu zen, eta esan zidan: 'Zer uste duzu, ba? Ezagutzen ez ditudan Morbihaneko ahaide madarikatuei utziko diedala lurra? Hori uste al duzu? Ikusiko dugu, ba! Zatoz hona, emakume nazkante hori!'. Gero, besoak nigana luzatu zituen. Orduan, Messieurs, esan nuen: 'Jainkoaren izenean... inoiz ez!'. Bera, orduan, ahurrak zabalik nigana hurbilduz, esan zuen: 'Geldiaraziko nauen jainkorik ez dago! Ulertzen al duzu, gorputz alferrontzi horrek? Gogoak ematen didana egingo dut'. Soinetatik heldu zidan. Orduan, Messieurs, Jainkoari otoiztu nion laguntza eske. Hurrengo minutuan, zeharo astintzen ninduen bitartean, guraize luzeak sentitu nituen eskuan. Alkandoraren botoiak kenduta zeuzkan, eta kandelaren argitan eztarri-zuloa ikusi nion. Deiadar egin nion: 'Utz nazazu!'. Soinak astintzen zizkidan oso gogor. Bai,

indartsua zen nire gizona, oso! Orduan, pensatu nuen: 'Ez!... Egingo al dut?... Tori, ba!...'. Zulotik sartu nizkion. Erortzen ez nuen ikusi!... Erortzen ez nuen ikusi!... Aitona ez zen ezertaz konturatu. Gorra da, agure txotxoloa da, jaunok... Erortzen ez nuen ikusi. Korrika atera nintzen. Inork ez zuen ezer ikusi...».

Bele izeneko harkaitz puskatik gora igo zen arrastaka Susan. Azkenik, uharte txiki eta harritsuko itzal geldoen artean zutik geratu zen, asnasestuka. Harkaitz labainkorraren jatorrizko barradera dela medio, lehorrari lotuta dago Bela uhartetxoa. Bide horri jarraituz itzuli nahi zuen etxera Susanek. Han ere egongo ote zen haren zain? Etxean. Etxea! Lau inozo eta gorpu bat. Itzuli behar zuen, gertatutakoa adierazi behar zien. Edonork ulertuko zion... Ustekabean, gauak —edo itsasoak— Susanen azpitik oihukatu zuen:

—Aja! Harrapatu zaitut!

Susan ikaratu, irristatu eta lurrera erori zen. Berriro zutik jartzen saiatu ere egin gabe, erne geratu zen, izututa. Arnasestuka, eskalapoi-hotsak entzun zituen. Hotsa eten egin zen.

—Nola arraio igora zara hona? —esan zuen gizon ikusezin batek ahots erlatsez. Susanek arnasari eutsi zion. Ahotsa ezagutu zuen. Erortzen ez zuen ikusi. Hilik —ala bizirik ote?— atzetik zebilkion.

Senetik atera zen. Kukubilkaturik zegoen arrailetik oihukatu zion:

—Sekula ez! sekula ez!

—A! Hortxe zaude, beraz. Gorriak ikusi ditut zugatik. Zaude, enetxu; ea zer-nolako itxura duzun. Zaude...

Millot behaztopaka, barrez eta biraoka ari zen ergelkiro pozaren pozez. Emakume txoriburuaren atzetik ateratzeko erabakiaz harro-harro zegoen. «Mamuak benetakoak direla? Tira! Bera bezalako Afrikako soldadu-ohi bati halako atso-ipuina aipatzea ere...» Dena den, harrigarria zen. Nor deabru zen emakume hura?

Susan adi zegoen, kukubilkaturik. Hildako gizona haren bila zetorren. Ez zegoen ihes egiterik. Hura bai zarata, hura, harri artetik ateratzen zuena! Lehenbizi, gizonaren burua agertu zen; gero, soinak ageri izan ziren. Gizon handia zen... haren gizona bera! Beso luzeak zabuka, ahotsa arraro samar nabari batzitzaion ere... Guraizeengatik izango zen, noski. Aldapan gora azkar arrastaka igo, arrezifeko hegiraino korrika egin eta bueltatu egin zen. Gizona, berriz, harkaitz batean zutik zegoen oraindik; beltz goibela nagusi zen zeruko dizdiraren pean.

—Nora zoaz? —deiadar egin zion zakar.

Susanek erantzun zion:

—Etxera! —eta adi-adi geratu zitzaion begira.

Gizonak pauso bat aurrera egin, beste harkaitz batera baldarki jauzi eta berriro gelditu zen, kulunka. Gero, esan zuen:

—Kar! kar! Bueno ba, jesus batean egongo naiz zure ondoan. Besterik ezin bada egin... Kar! kar! kar!

Gizonari begira geratu zen. Begiek, ikatz-txingar antzo, burmuin barrua erretzen zizkiotela sentitu zuen Susanek. Hala ere, hain ezagun egiten zitzaion aurpegiari begiratzeak izutu egiten zuen. Susanen azpian, itsasoak harkaitza lamikatzen zuen kulunka etengabe eta atsegin batez, samur.

Gizonak, beste pauso bat aurrera emanez, esan zuen:

—Zure bila nator. Zer pentsatu duzu, ba?

Susanek dardar egin zuen. Haren bila zetorren! Ez zegoen ihes egiterik, ez bakean bizitzerik, ez esperantza izaterik. Etsi-etsian begiratu zuen inguruan. Bat-batean, kostalde goibela, uhartetxo iluna, zerua bera ere hasi ziren

bien gaintik jira-biraka, eta unetxo bat pasata bakera itzuli ziren berriro.

Susanek begiak itxi eta oihu egin zuen:

—Ezin duzu itxaron ni hilik egon arte, ala?

Mundu honetan jarraitzen zion itzalaren aurkako gogorro handi batek astintu zuen goitik behera Susan. Gainerakoenak bezalako haurrak izateko gai ez zen itzal hura atzetik zebilkion hilda ere, oinordeko bat oihuka, lehiaz, eskatzen ziola.

—Ei! Zer? —esan zuen Millotek bien arteko aldeari zuhertasunez eutsiz. Bere artean pentsatu zuen: «Kontuz. Burutik zegok. Istripuren bat gertatzera zihoak".

Susanek aurrera segitu zuen haserre biziz:

—Bizi nahi dut. Astebetez... egun batez... bada ere. Baina bizi nahi dut. Adierazi behar diet... Txiki-txiki eginda utziko zaitut; hamaika aldiz hilko zaitut, baina... baina nizi naizen artean, ez dizut utziko niri ukitzen. Zenbat aldiz hil behar zaitut, biraolari hori? Deabruak bidali zaitu hona. Ni neu ere madarikaturik nago!

—Zatoz —esan zion Millotek kezkatu-rik eta adiskidetsu—. Zeharo bizirik nago! O, Jainkoarren!

Susanek oihu zorrotza jaurki zuen:

—Bizirik!

Berehala, Milloten aurretik desagertu zen, bat-batean, uhartetxoak emakumearen oin azpian huts egin izan balu bezala. Millotek aurrera korrika egin eta kokotsa hegian erori zen, ahozpez.

Madame Levaille aldapako maiatz-belarrean eserita zegoen. Begietan ez zuen malkorik. Hanka potxoloak luzaturik zeuzkan. Oin zaharrek, beltz koloreko oinetako dotoreetan sartuta, gorantz apuntatzen zuten. Ondoan eskalapoiak zituen, eta apur bat harantzago, soropil zimelean, euritakoa zetzan —azken honek gerlari bentzituaren hatzaparretatik eroritako arma zirudiela—. De Chavanes markesak, zaldi gainean, eskularru gabeko esku bat izterrean, nekez jaikitzeke gai zen andre zaharrari begiratu zion. Lau gizon Susanen gorpua alga-orgatxo batean garraiatzen ari ziren bideska batetik. Banaka batzuk atzetik zetozen, gogo handirik gabe.

Madame Levaillek begirada bat bota zion segizioari.

—Bai, Monsieur le Marquis —esan zuen berotasun handirik gabe, betiko ahoskera lasaia eta andre zaharraren zentzutasuna erakutsiz—. Lagun

zorigabe asko daude munduan. Nik, esaterako, haur bakar bat izan nuen. Bakar bat! Eta ez dute eliz lurrean lurperatuko!

Ustekabean, begiak busti zitzaizkion, eta masail zabaletatik behera irristatu ziren negar-malkoak. Soin-zapitik tiratu zuen bero apur bat sentitzeko. Markesak zelatik aurrera makurtu eta esan zion:

—Tamalgarria izan da. Nire sinpatiarik handiena duzu. Apaizarekin hitz egingo dut. Erotu egin zen, zalantzarik gabe. Eta erorketa istripuz gertatu zen. Halaxe esan du argi eta garbi Millotek. Egun on, Madame.

Markesa arrapaladan aldendu zen bere artean pentsatuz:

—Inozoen zaindari izendatu behar dute andre zaharra, baita baserriko administratzaile ere. Kosta ahala kosta lortu behar dut. Are hobea izango da, beste Bacadoutar bat hemen izatea baino, hura ere errepublikazalea izango baitzen seguraski, eta herria hondatuko zidan.

AMAIERA